

2021

Aizkiodunen Batzar Nagusia

Batzarrerako Eskuliburua

*Realaren Azkiodunen Batzar Nagusira
joan nahi dut*

Aurten **bi bide** daude Azkiodunen Batzar Nagusian parte hartzeko.

1. PRESENTZIALA

Batzarra **2021eko abenduaren 14an egingo da, 19:00etan**, bigarren deialdian, **Viktoria Eugenia Antzokian**, Argentinako Errepublika, 2, 20004 Donostia-San Sebastian, aurreikusita baitago ezinezkoa izango dela lehen deialdian egitea, zeina 2021ko abenduaren 13rako deitu baita, leku eta ordu berdinean.

Presentzialki joan nahi duen azkiodunak NANA eta postaz bidalitako parte hartze, ordezkaritza eta boto txartela eraman beharko ditu.

2. TELEMATIKOA

Ezinbestekoa da aldeztatik izena ematea, www.realsociedad.eus webgunean inprimaki bat betez, nahitaezko datu hauek emanez:

- Izen-abizenak, edo sozietatearen izena.
- NANA edo Pasaporte (horren kopia eskaneatua aurkeztu behar da, bi aldeetatik) eta, persona juridikoa bada, legez ordezkatzeko duen pertsonarena.
- Azkiodunaren IDa.
- Posta elektronikoaren helbidea.
- Harremanetarako telefono zenbakia.

Noiz?

2021eko azaroaren 16tik abenduaren 13ko 23:59ra arte.

Telematikoki parte hartuko duen azkiodunaren izaera egiaztatu eta gero, azkiodunek mezu elektroniko bat jasoko dute izen ematea jaso dela baieztatzeko.

GARRANTZITSUA: *Izena ematen duten kideek baino ezingo dute Batzarra streaming bidez jarraitu. Akziodunen Batzar Nagusira joateak ezeztatu egiten du telematikoki egindako inskripzio oro, baita edozein eskuordetze ere.*

Ez dut Batzarrera joan nahi, baina nire botoa delegatu nahi dut

Batzar Nagusian izateko eskubidea duen akziodun orok eskubidea izango du, beste pertsona adinez nagusi baten bidez, bertan ordezkaturia izateko, nahiz eta pertsona hori akzioduna izan ez.

NOLA DELEGATU? 3 AUKERA

1. Parte hartze, ordezkari eta boto txartela ordezkari buruzko atalean behar bezala beteta emango zaio ordezkari eman zaion pertsonari.

2. Agiri hauek postaz bidaliz, erantsitako gutun azala erabiliz (ez du seilurik behar):

- Parte hartze, ordezkari eta boto txartela, Ordezkari buruzko atala behar bezala beteta eta sinatuta.
- Ordezkariaren (noren delegatzen den) NANaren edo Pasaportearen kopia, salbu eta Administrazio Kontseiluko edozein kiderengan delegatzen bada, orduan ez baita beharrezkoa kopia aurkeztea.

Noiz?

Bide horretaz delegatzeko epea 2021eko azaroaren 16tik abenduaren 14ko 12:00etara arte izango da.

3. www.realsociedad.eus helbidean inprimaki bat betez, nahitaezko datu hauek emanez:

- Delegatzen duen akziodunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena.
- Delegazioa ematen zaion akziodunaren/Administrazio Kontseiluko kidearen (edo lehendakari kargua, dagokionean)/akziodun ez den hirugarrenaren izen-abizenak.
- Delegatzen duen akziodunaren NANA edo Pasaportea (horren kopia eskaneatua aurkeztu behar da, bi aldeetatik), eta, pertsona juridikoa bada, legez ordezkari duen pertsonarena.
- Delegazioa ematen zaion akziodunaren edo akziodun ez den pertsonaren NANA edo Pasaportea (horren kopia eskaneatua aurkeztu behar da, bi aldeetatik), salbu eta Administrazio Kontseiluko kide batengan delegatzen bada.
- Akziodunaren IDa.

- Delegazioa ematen zaion akziodunaren IDa (akzioduna bada), salbu eta Administrazio Kontseiluko kide batengan delegatzen bada.
- Delegazioa ematen zaion akziodunaren edo akziodun ez den hirugarren pertsonaren helbide elektronikoa, salbu eta Administrazio Kontseiluko kide batengan delegatzen bada.
- Delegazioa ematen zaion akziodunaren edo akziodun ez den hirugarren pertsonaren harremanetarako telefonoa, salbu eta Administrazio Kontseiluko kide batengan delegatzen bada.

Noiz?

Bide telematikoz delegatzeko epea 2021eko azaroaren 16tik abenduaren 13ko 23:59etara arte izango da.

Eskaera txekeatu eta gero, ordezkatuak baieztapen mezua jasoko du. Aldi berean, ordezkariak mezu bat jasoko du (ordezkaritza txartelean emandako helbidean), Batzarraren bezperan edo egunean bertan, Batzarrean sartzeko estekarekin eta kredentzialekin.

GARRANTZITSUA: *Ez bazara akzioduna eta Batzarrean sartu nahi baduzu, gutxienez 5 akzio dituen akziodun baten delegazioa izan beharko duzu.*

Nola sartu eta nola eman botoa telematikoki joaten banaiz?

ESTEKA BATEN BITARTEZ

Izen ematea jaso dela baieztatzeko mezuaz gain, izena telematikoki emandako akziodunek beste mezu bat jasoko dute, Batzarraren bezperan edo egunean bertan, Batzarrean sartzeko ea bozkatzeko estekarekin eta kredentzialekin.

Esteka hori aurkitu ahal izango da baita ere www.realsociedad.eus webgunean eta Realzale App-an.

Nola har dezaket parte galde-eskeetan modu telematikoan joaten banaiz?

Aurretiaz: Bidali zure galderak akziodunak@realsociedad.eus helbidera, 2021eko abenduaren 13ko 23:59 baino lehen.

Batzarrean zehar: Idatziz ere bidali ahal izango dira galderak, gaitutako txataren bidez.
Lehendakariak Batzarrean bertan erantzungo du, edo idatziz Batzarra amaitu eta hurrengo zazpi egunen barruan, Kapital Sozietateen Legearen 1/2010 LEDaren 182. artikulua araberaz.

Prozesuarekin zalantzarik izanez gero, akziodunak@realsociedad.eus helbidera idatzi dezakezu, edo 943 46 28 33 zenbakira deitu.

Akziodunen Batzar Nagusi telematikoa deialdiaren oinarriak osorik: www.realsociedad.com